

Gutuna Olentzerori



SANTI LEONÉ

Aurten badakit zer eskatu Olentzerori, baina, martxoan egonda ere, uste dut berandu nabilela. Hauexek, nire eskaerak: aldaketaren aldeko alderdien partetik, erabakiak hartzeko ausardia handiagoa eta paktatzeko milikeria gutiago. Bai, asmatu duzue, eskuin unionistari kopiatu dizkiodan gauzak dira. Hirugarren eskaera bat ere ebatsi diot: Olentzero maitea, gure aldeko think tank bat nahi nuke.

Nafarroan UPNk badu bat: Civismo. Joan den egunean, hanxe eman zuen mintzaldi bat Iñaki Iriarte UPNko parlamentari ohiak, "Navarra en libertad" (Nafarroa askea) zikloan. Gaia: Euskara eta elkarbizitza.

Diario de Navarra egin zion elkarriketan, Iriartek azaldu zuen ameskeria dela euskara bere eremu historikora berriz eraman nahi izatea, eta absurdoa, eremu historiko horretarik kanpora zabaldu nahi izatea. Beraz, euskara nonbait irakastekotan, toki horretan noizbait mintzatua izan izana baldintza beharrezkoa da, baina inolaz ere ez nahikoa. Bertzela adierazita: euskararen inguruan ezin da proiekturik eraiki ez iraganari ez etorkizunari begira. Itsusia da aztertzea nola ailegatu garen hona; pentsatzea nora joan nahi dugun, desegokia.

Iriarteren diskurtsoak boladan dagoen jarrera liberalera garamatza ezinbertzean: ikasi nahi duenak ikas dezala, kitto. Baina hori gezurra da. Ni elebakar hazi nintzen, espainolez, eta 23 nituela hasi nintzen euskara ikasten nahi izan nuelako; gure semea elebakar hazi zen, euskaraz, baina eskolan hasi bezain fite espainola ikasi behar izan zuen, halabeharrez. "Errealitate" deituta, desoreka hori sakralizatu eta betiketzen ahal dugu. Edo gobernu bat saiatzan ahal da egoera hori -pixka bat bederen-orekatzen. Baldin eta erabaki ausartak hartzen baditu. Baldin eta alderdiek aliantzak egiten badakite. Eta think tank bat lagungarria izan liteke. ●

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ADUR

"ESPAINIAKO GOBERNU BATEK GIZARTEA BEROTU ZUELAKO HIL ZINTUZTEN, AITA"

AITZIBER BERRUETA, ANGEL BERRUETAREN ALABA

Angel Berrueta eta Kontxi Sanchiz oroitu dituzte Iruñean, haien heriotzaren 15. urteurrenean. Espainiako polizia batek eta bere semeak hil zuten Berrueta, martxoaren 11ko Madrilgo atentatuetatik bi egunera, gizonak bere okindegian ETaren aurkako kartel bat jarri nahi izan ez zuelako. "Hil zintuzten, Espainiako gobernu batek gizartea berotu zuelako martxoaren 11ko atentatuak ETak egin zituela esanez. Garrantzitsuagoa zen hori, atentatuan hildako pertsona guztiez arduratzea baino", adierazi du alabak. **2019/03/14**

